

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO-
KONTSEILUAK 2025EKO IRAILAREN 24AN IZANDAKO OHIKO BILERAREN
AKTA**

2024ko irailaren 24an, 14:00etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Bilbon, Poza Lizentziatuaren kaleko 13.ean dagoen LEDO eraikinean (Dorre aretoa), eta bat etorritzat Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluekin, Kontseilu honi dagokionez joko da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian adostuak izan direla, Gasteizko Araba kaleko 45.ean, hori baita erakundearen egoitza.

Behin aurrekoa argi azaldu ostean, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren presidentearen deialdi bidez, honako hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz**, Osasuneko sailburua, presidentea; **Gontzal Tamayo Medel**, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea, **Aritz Uriarte Fuertes**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, **José Enrique Corchón Álvarez**, Eusko Jaurlaritzaren Finantzetako eta Aurrekontuetako sailburuordea (telematikoki) eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde**, Aurrekontuetako zuzendaria (telematikoki).

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak —Osakidetza ente publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak— eta Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera eta, horrenbestez, bertaratuek Osoko Bilkura eratu dute, kontseiluburuak deitutako bilera egiteko eta aldeztatik bidali zitzaizaien gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Kontseilu honetara joan dira, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusia, **Lorea Bilbao Artetxe**, eta aipatutako ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA. – 2025eko maiatzaren 27ko, uztailaren 17ko, 23ko eta 30eko eta abuztuaren 27ko bilkuretako aktak irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonak aho batez onartu dituzte 2025eko maiatzaren 27an, uztailaren 17an, 23an eta 30ean eta abuztuaren 27an egindako bileren aktak.

BIGARRENA. – Administrazio Kontseilua eratzea eta partzialki berritzea.

Lehenengoa. - Enrique Peiro Callizo jauna eta Lorea Bilbao Artetxe andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide-kargutik kendu dira.

Bigarrena. - Gontzal Tamayo Medel, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea, eta Aritz Uriarte Fuertes, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide izendatu dira.

Hirugarrena. - Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren kideak partzialki aldatu dira. Kide guztiak bertan zeudenez, karguak onartu dira eta Administrazio Kontseilua formalki eratu da, osaera honekin:

- **Presidentea:** Alberto Martínez Ruiz jauna, Osasuneko sailburua.
- Gonzalo Tamayo Medel jauna, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea.
- Aritz Uriarte Fuertes jauna, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.
- José Enrique Corchón Álvarez jauna, Finantza eta Aurrekontu sailburuordea.

- Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna, Aurrekontuen zuzendaria.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

HIRUGARRENA. – Administrazio Kontseiluari aurkeztea OSATEK, SA sozietatearen Administrazio Kontseiluko sailburuen kargu-uztea, eta, hala badagokio, onartzea, eta sailburu berriak izendatzea.

Lehenengoa. – Osatek, SA sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide izateari utzi diote Enrique Fernando Peiró Callizo jaunak eta Susana López Altuna eta M. Teresa Martínez de Albéniz Zabaleta andreek, eta eskerrak eman zaizkie egindako lanagatik.

Bigarrena. - Administrazio Kontseiluko kide berri izendatu dituzte jarraian adierazitakoak, kargua aurretik onartu ostean eta bost urteko estatutupeko gehieneko aldirako:

- Gonzalo Tamayo Medel jauna, Osasun Saila (Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea).
- Koldo Berganzo Corrales jauna, Osakidetza (Asistentzia Sanitarioko zuzendaria).
- Aritz Uriarte Fuertes jauna, Osasun Saila (Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea).

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

LAUGARRENA. – 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldietarako Osatek, SAren urteko kontuen auditore Zubizarreta Consulting, SL enpresaren izendapena ziurtatzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2025eko irailaren 24an egindako bileran, bertan kapital sozial osoa ordezkaturata zegoela, eta ente publikoari bazkide bakar gisa dagozkion eskubideak baliatuz, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Eusko Legebiltzarraren 8/1997 Legearen arabera, erabaki du Osatek, SA Sozietate Publikoaren Ezohiko Batzar Orokor eta Unibertsala eratzea eta erabaki hauek hartzea:

Lehenengoa: Urteko kontuen ikuskariak izendatzea.

1.- 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldietako auditoretza-zerbitzuetarako Zubizarreta Consulting, SL kontratatzea erabaki da.

Bigarrena. Ahalmena eman zaie Administrazio Kontseiluko presidenteari eta idazkariari batak zein besteak erabakia dagokion Merkataritza Erregistroan inskribatu eta erregistratzeko beharrezkoak diren egintza guztiak egin ditzan, bai eta erabakiak erabat eraginkorrak izateko beharrezkoak diren jarduketak guztiak egin ditzan ere, arlo horretan indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena: Bilera honen akta irakurri, onartu eta sinatu da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

BOSGARRENA. - **Onkologikoa osasun-zentroaren organo gidarian egongo den pertsona izendatzea, Administrazio Kontseiluak proposatuta.**

Gai-zerrendako puntu hau ondorioz gabe utzi da; izan ere, ekainaren 24ko 134/2025 Dekretuaren bidez, Onkologikoa osasun-zentroa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoan integratu da, titulartasun publikoko baliabide gisa, eta ez da beharrezkoa inolako izendapenik egitea.

SEIGARRENA. – Zerbitzu-erakundeetako egiturazko plantillari buruzko informazioa, 2025eko maiatzaren 31koa eta 2025eko uztailaren 31koa.

Egiturazko plantillen onespeneren osagarri gisa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 1998ko abenduaren 11ko Erabakiak arau arrunt batzuk ezartzen ditu, batetik, erakundeetan kudeaketa-eskuduntzak gauzatzea errazteko, eta, bestetik, ente publikoan pertsonalaren kudeaketak duen eragin ekonomikoaren kontrola eta jarraipena arintzeko.

Ondorio horietarako, aipatutako erabakian berariaz jasotzen da ente publikoko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onartu behar dela lanpostuak erakunde batzuetatik beste batzuetara fisikoki lekualdatzea. Lekualdatze horiek aldaketak eragiten dituzte plantilletan eta, ondorioz, haien berri eman beharko zaio Administrazio Kontseiluari, eta organo horrek berretsi egin beharko ditu. Zehazki, hilabetearen azken eguneko egoera jakinarazi beharko zaio.

2025eko martxoko egiturazko plantillari buruzko txostena bidali zenetik, hainbat lanpostu aldatu izan dira aldian-aldian zerbitzu-erakunde batzuetatik besteetara, erakunde horiek asistentzia- eta kudeaketa-programak aurrera eramateko beharrezkoak dituzten giza baliabideez hornitze aldera. Beraz, berariazko araudian ezarritakoa betetzeko helburuz jakinarazi dira 2024ko abenduan zerbitzu-erakunde bakoitzari atxikita zeuden langileen kopuruak lanbide-taldearen arabera, eta aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren ondorioz eta **2025eko martxotik 2025eko uztailaren 31ra** bitartean izandako lekualdatzeen ondorioz langileen esleipen horrek izan dituen aldaketak.

Konparazio-taulak gehitu dira akta honen I. eta II. eranskin gisa; akta horietan adierazi da 2025eko martxotik 2025eko maiatzaren 31ra eta 2025eko maiatzetik 2025eko uztailaren 31ra bitartean erakunde bakoitzari atxikita zeuden lanbide-taldearen arabera langileen kopurua, bai eta langileen esleipen horrek izandako aldaketak ere.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

ZAZPIGARRENA. – Erabaki-proposamena egitea, Ordainsarien aldean plangintza eta kudeaketarako Zuzendariordetzarena, gora jotzeko errekurtsoko batzuei buruzkoa, eta, hala badagokio, onartzea.

- Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 465/2025 Ebazpenaren aurka gora jotzeko 2 errekurtsoko aurkeztu dira, eta lehen mailako arretako administrazio-arloetako lanpostuei esleitutako % 4ko berariazko osagarria eta atzerapenak ordaintzeko eskatu da.

Errekurtsoko horiek **ezetsi** egin dira, Zuzendaritza Nagusiko langileek ez baitute halako osagarririk jasotzen.

- Gora jotzeko errekurtsoko bat aurkeztu da Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 21eko 353/2025 Ebazpenaren aurka, eta, haren bidez, zerbitzu-eginkizunetan zerbitzuak eman diren bitartean ospitaleratzeagatik osagarri gisa jaso ez diren zenbatekoak ordaintzeko eskatu da.

Errekurtsoko hori **ezetsi** egin da; izan ere, borondatezko zerbitzu-eginkizunetan jaso behar diren ordainsariak zerbitzu-eginkizunetan lan egiten den lanpostuari dagozkionak dira, eta ez dira ordainduko jatorrizko lanpostuari dagozkion ordainsariak.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

ZORTZIGARRENA. – Erabaki-proposamen egitea, Plangintza eta Kudeaketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsokoari buruzkoa, 20-21-22ko EPEan eta Egonkortze-prozesuan Kardiologia Zerbitzuan eskaini ziren lanpostuei buruz, eta, hala badagokio, onartzea.

- Gora jotzeko errekurtsoko bat aurkeztu da, eta bertan alegatu da kardiologiako lanpostuak eskaini direla 20-21-22ko EPEan eta Donostialdeko ESIko Egonkortze-prozesuan, baina aldeztu aurretik ez zaizkiela lanpostu horiek eskaini

estatutupeko langile finkoei lanpostuak betetzeko prozeduretan, eta eskatu da lanpostu horiei egindako atxikipena baliogabetzeko eta izendapen-ebazpenak eteteko.

Errekurtso hori **ezetsi** egin da, bai eta eteteko eskaera ere; izan ere, 20-21-22 EPEan eta Egonkortze-prozesuan eskainitako lanpostu guztiak lekualdatze-lehiaketa baino lehen eskaini ziren —2023ko martxoa— Osasun Sistema Nazionaleko langile finkoentzat. 2023ko lekualdatze-lehiaketan esleitu ez ziren lanpostu guztiak, bai eta lekualdatze-lehiaketan plazak esleitu zitzaizkien pertsonak “liberatutako” lanpostuak ere, 20-21-22 EPEan eta Egonkortasun-prozesuko eskaintzan sartzeko hautatu ziren, eskaintzan hitzartutako kopurura iritsi arte.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

BEDERATZIGARRENA. – Lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebazten dituzten Osakidetza zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka jarri diren gora jotzeko errekurtoei buruzko erabaki-proposamenak aurkeztea, eta, hala badagokio, onartzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 12ko 984/2025 Ebazpenaren aurka gora jotzeko 182 errekurto aurkeztu dira. Ebazpen horren bidez, lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebatzi ziren, eta Osakidetza zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapenaren behin betiko esleipena argitaratzeko agindu zen, zeina abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapenaren ohiko deialdiari baitzegokion (2024ko deialdia).

- Gora jotzeko 15 errekurto **onetsi** dira. Horietan, B multzoko curriculum-merezimenduak berrikusteko eta, beraz, dagokien maila aitortzeko eskatu zen, arrazoi hauengatik:

- ✓ 14 errekurtsu onetsi dira maila aitortzeko, maila aitortzeko eskatzen diren gutxieneko puntuazioak lortu direlako.
 - ✓ Errekurtsu bat onetsi da baina ez du ondorioz maila aitortzeko, ez baita lortu maila aitortzeko B multzoan eskatzen den gutxieneko puntuazioa.
- Gora jotzeko 18 errekurtsu **partzialki onetsi** dira. Errekurtsu horietan, B multzoko curriculum-merezimenduak berrikusteko eta, beraz, dagokien maila aitortzeko eskatu zen, arrazoi hauengatik:
 - ✓ 5 errekurtsu partzialki onetsi dira maila aitortzeko, maila aitortzeko eskatzen diren gutxieneko puntuazioak lortu direlako.
 - ✓ 13 errekurtsu partzialki onetsi dira baina ez du ondorioz maila aitortzeko, ez baita lortu maila aitortzeko B multzoan eskatzen den gutxieneko puntuazioa.
- Gora jotzeko 145 errekurtsu **ezetsi** dira arrazoi hauengatik:
 - ✓ Gora jotzeko 128 errekurtsotan B multzoko curriculum-merezimenduak berrikusteko eta, beraz, dagokien maila aitortzeko eskatu zen. Ezetsi egin dira; izan ere, curriculum-merezimenduak berrikusi ondoren, ez da betetzen maila aitortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa.
 - ✓ Gora jotzeko 2 errekurtsotan eskatu zen A multzoko ebaluazioa berrikusteko eta, ondorioz, dagokion maila aitortzeko. Ezetsi egin da, ez baita betetzen maila aitortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa.
 - ✓ Gora jotzeko 3 errekurtsotan eskatu zen C multzoko ebaluazioa berrikusteko eta, ondorioz, dagokion maila aitortzeko. Ezetsi egin da, ez baita betetzen maila aitortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa.
 - ✓ Gora jotzeko 9 errekurtsotan eskatu zen A eta C multzoetako ebaluazioa berrikusteko eta, ondorioz, dagokion maila aitortzeko. Ezetsi egin da, ez baita betetzen maila aitortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa.
 - ✓ Gora jotzeko 2 errekurtsotan eskatu zen B eta C multzoetako ebaluazioa berrikusteko eta, ondorioz, dagokion maila aitortzeko. Ezetsi egin da, ez baita betetzen maila aitortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa.

- ✓ Gora jotzeko errekurtsu batean eskatu zen, atzera egin ondoren, deialdian zuen parte-hartzea berrikusteko. Ezetsi egin da, bere asmoari aldeztu aurretik erantzun zitzaiolako.
- Gora jotzeko 4 errekurtsu **ez dira onartu** arrazoi hauengatik:
 - ✓ Gora jotzeko 4 errekurtsotan maila aitortzeko eskatu zen. Errekurtsu horiek ez dira onartu, ez baitute legitimaziorik, 2024ko deialdian onartua ez zegoelako.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

HAMARGARRENA. - Erabaki-proposamena egitea, Administrazio Kontseiluaren erabaki bat, 2025eko otsailaren 11koa, zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren aurkakoa, atzera botatzeari buruzkoa, eta, hala badagokio, onartzea. Ebazpen haren bidez, lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebatzi ziren.

Administrazio Kontseiluaren 2025eko otsailaren 11ko erabakia atzera botatzeko erabaki bat aurkeztu da. Erabaki horrek ezetsi egiten du Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua; Ebazpen horren bidez, lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebatzen dira, eta lanbide-garapenaren maila behin betiko argitaratzeko agintzen da, zeina lanbide-garapeneko ohiko deialdiari baitagokio, Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez argitaratuari.

Administrazio Kontseiluaren 2025eko otsailaren 11ko Erabakia **atzera bota** da. Erabaki horren bidez, gora jotzeko errekurtsua ezetsi zen, gora jotzeko errekurtsu hori baietsiz; izan ere, curriculum-datuak berrikusi ondoren, egiaztatu zen ebaluazio-multzo guztietan lortu zirela eskatzen ziren puntuazioak, eta, ondorioz, dagokion maila aitortu behar da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

HAMAIKAGARRENA. - Erabaki-proposamena egitea, Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsuari buruzkoa, eta, hala badagokio, onartzea. Ebazpen horren bidez, Familiako Medikuen kategorian onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak eta destinoen behin betiko esleipena argitaratu ziren.

Gora jotzeko errekurtsu bat aurkeztu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak argitaratzen dira eta lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean 2025eko otsaileko zikloan deitutako destinoen behin betiko esleipena egiten da. Errekurtsuan, prestakuntzaren atalean puntuazio altuagoa eta lanbide-esperientziaren atalean puntuazio altuagoa izatea eskatzen da.

Gora jotzeko errekurtsu hori **partzialki** baietsi da, erreklamatutako prestakuntza-merezimendua baloratu egin behar baita, Epaimahaiak baloratu duelako. Hala ere, puntuazio hori oker transkribatu zen. Beraz, ez da baietsi behar erreklamatutako lanbide-esperientzia.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

HAMABIGARRENA. - Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsu batzuei buruzko erabaki-proposamenak egitea, izangaien behin betiko zerrendari eta destinoen esleipenari eta Egonkortzeko EPEaren eta 20-21-22ko EPEaren izendapena argitaratzeari buruzkoak, eta, hala badagokio, onestea.

Guztira, gora jotzeko 192 errekurtsu aurkeztu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka. Ebazpen horien bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzen da, eta Egonkortzeko EPEaren eta 2020-2021-2022ko EPEaren barruan egindako destinoak eta izendapenak esleitu, kategoria hauetan:

- Zerbitzu orokorretako gidaria
- Zeladorea
- Urologia
- Anestesiologia
- Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko erdi-mailako teknikaria
- Odontologia
- Alergologia
- Traumatologia
- Obstetrizia eta Ginekologia
- Administrari Laguntzailea
- Administraria
- Garraio sanitarioaren gidaria
- Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
- Medikuntza intentsiboa
- Sukaldaria
- Fisioterapeuta
- Analisi Klinikoko Fak. Esp. mediko-teknikoa
- Emagina
- Anestesiologia eta Bizkorketa
- Ospitaleko Farmazia
- Neurologia
- Ospitaleko Pediatria
- Kirurgia orokorra eta digestio-aparatua
- Etxeko ospitalizazioa
- Erradiodiagnostikoa
- Ospitaleko larrialdiak

- Familia-medikua
 - Gaixotasun Infekziosoak
 - Emergentziak
 - Hematologia eta Hemoterapia
 - Otorrinolaringologia
 - Erizaintza
 - Logopedian diplomaduna
 - Terapeuta okupazionala
 - Instalazio Elektrikoetako Teknikaria
 - Mantentze-lan mekanikoetako ofiziala
 - Psikiatria
 - Analisi Klinikoetako FEMT.
 - Goi-mailako informatikaria
 - Administrazio eta kudeaketako erdi-mailako teknikaria
 - Elektromedikuntzako erdi-mailako Teknikaria
 - Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko goi-mailako teknikaria
-
- Gora jotzeko 37 errekurtsio **baietsi** dira, honako arrazoi hauek direla eta:
 - ✓ Esperientzia: Osakidetzan zein beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko herrialdeetako Osasun Sistema Publikoko erakundeetan emandako zerbitzuak, epearen barruan behar bezala egiaztatu direnak, kontuan hartu behar diren arren zenbatu ez direneko kasuak, akats bat izan delako aplikazio informatikoan edo errekurtsogileak zerrendatutako hirugarren izangaien zerbitzuen zenbaketan.
 - ✓ Prestakuntza: Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, puntuazioa gorantz aldatzea erabakitzen deneko kasuak.
 - ✓ Euskara: Titulua merezimenduztat eta plaza hutsak eskuratzeko eskakizuntzat hartu behar deneko kasuak.

- ✓ Destinoak ez hautatzea eta destinoen hautaketa osatugabea: Eskatutako baldintzak betetzen zituzten eskaintako destino guztien hautaketa osoa egin arren haietako bakar baten esleipendun izan ez bada, izangaiak hautaketa-prozesuan sartu behar dira eta erresulta-fasean parte hartu behar dute.
 - ✓ Nazionalitatea: Nazionalitate-baldintza ez betetzeagatik izangai bat bidegabe baztertu deneko eta zerrendan sartzea bidezkoa deneko kasuak.
- Gora jotzeko 16 errekurtsio **partzialki baietsiko** dira, honako arrazoi hauek direla eta:
 - ✓ Esperientzia: Osakidetzan zein beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko herrialdeetako Osasun Sistema Publikoko erakundeetan emandako zerbitzuak, epearen barruan behar bezala egiaztatu direnak, kontuan hartu behar diren arren zenbatu ez direneko kasuak, akats bat izan delako aplikazio informatikoan, eta errekurtsioak partzialki baietsi direnekoak.
 - ✓ Prestakuntza: Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, puntuazioa gorantz aldatzea erabakitzen deneko eta errekurtsioak partzialki baietsi direneko kasuak.
 - ✓ Euskara: Titulua merezimendu gisa hartu behar deneko kasuak, errekurtsioak partzialki baietsita.
 - Gora jotzeko 138 errekurtsio **ezetsi** dira, honako arrazoi hauek direla eta:
 - ✓ Esperientzia: Emandako zerbitzuak behar bezala zenbatu direla egiaztatu deneko kasuak, non errekurtsioak ezetsi egin behar baitira.

- ✓ Azterketako eta prestakuntzako galderak berrikustea: Dagokion kategoriako epaimahaia bildu eta beste berrikuspen bat egin ondoren, emandako puntuazioa zuzena dela egiaztatzen deneko kasuak.
- ✓ Hartu gabeko ordaindutako oporrak: Ordaindutako eta hartu gabeko oporraldiak zerbitzuak ematen igarotako denbora gisa zenbatzea eskatzen deneko kasuak. Ezetsi egin behar dira; izan ere, 2024ko otsailaren 28ko epaiaren aurreko aldiak ezin dira zenbatu.
- ✓ Euskara: Hizkuntza-eskakizuna merezimendu gisa baloratzen ez deneko kasuak, epez kanpo lortu delako edo behar ez bezala aurkeztu delako; baita errekurtsogileari eskaintzen zaizkion lanpostuetarako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna ez izateagatik destinatorik lortzen ez deneko kasuak ere, non errekurtsuak ezetsi egin behar baitira.
- ✓ Titulua: Errekurtsoa ezetsi behar den kasuak, deialdiaren oinarrietan eskatutako titulazioa egiaztatu ez delako.
- ✓ Desgaitasuna: Oinarri espezifikokoak onartzen dituen azaroaren 24ko 1808/20223 Ebazpenaren arabera (azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen), lehiaketa eta lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko EPEan ez dago desgaitasun-txandarik, eta, beraz, errekurtsuak ezetsi egin behar dira.
- ✓ IT Txartelak: Dagokion kategoriako deialdiaren oinarri espezifikoek eskatzen duten informatika-ezagutzarik ez duteneko kasuak, non errekurtsuak ezetsi egin behar baitira.
- ✓ Destinoak ez hautatzea eta destinoen hautaketa osatugabea: Destinatorik hautatu ez deneko edo, behar bezala egin badu, esleipenduna izango balitz, hautaketa-prozesutik kanpo geratzen deneko kasuak, non errekurtsuak ezetsi egin behar baitira.

- ✓ Berdinketa hausteko irizpideak. Oinarri orokorretako 14.1.1 oinarrian berdinketa hausteko aurreikusten diren irizpideak aplikatu behar direneko kasuak, non errekurtsioak ezetsi egin behar baitira.

Gora jotzeko errekurtsio bat **ez da onartu**; izan ere, errekurtsioa funtsik gabea da argi eta garbi, errekurritzen den Ebazpenak ez baitauka oposizio-aldiko emaitzei buruzko daturik, eta haren berrikuspena da errekurtsioaren xede.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

HAMAHIRUGARRENA. – Enplegu-eskaintza publikoaren eredu berria.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak Osakidetzako Administrazio Kontseiluari jakinarazi dio Osasuneko Mahai Sektorialak 2025eko ekainaren 25ean hartutako Erabakia, zeinaren bidez EPE eredu berria ezartzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoan.

2024ko azaroko Mahai Sektorialean, Osakidetzak EPE eredu berriaren lehen proposamena aurkeztu zuen, Mahai Sektorialean ordezkariak zuten erakunde sindikalek azter zezaten. Sindikatuek alegazioak aurkeztu zituzten, eta Osakidetzak alegazio horiek aztertu ondoren, 2025eko martxoaren 26ko Osasuneko Mahai Sektorialean, 2025etik aurrera deituko diren enplegu publikoaren eskaintzarako oinarri izango diren ezaugarriak eta irizpide orokorrak zehaztu eta jakinarazi ziren.

Hori guztia bat etorri zen Osakidetzako EPE eredu berriari buruz 2025eko ekainaren 25ean Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ordezkariak eta honako erakunde sindikal hauek hartu zuten erabakiarekin: SATSE eta SME, zeinek Osasuneko Mahai Sektoriala osatzen baitute.

Ondorioz, Kontseilu honi aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zeinek barne hartzen baitute Osakidetzan 2025eko ekainaren 25ean Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ordezkariak eta SATSE eta SME sindikatuek EPE eredu berriari buruz hartutako

erabakia, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean, Osakidetza ente publikoaren estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan eta arestian aipatutako araudian xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau erabaki da:

Lehenengoa. – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoan EPE eredu berria ezartzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ordezkariak eta SATSE eta SME erakunde sindikalek 2025eko ekainaren 25ean Osasuneko Mahai Sektorialan adostutako irizpideak kontuan hartuta.

Bigarrena. - Osasun Sailari helaraztea Osasuneko Mahai Sektorialaren 2025eko ekainaren 25eko erabakia, Gobernu Kontseiluak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren EPE eredu berria onar dezan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

HAMALAUGARRENA. - Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren patronatuko kideak izendatzea.

Administrazio Kontseiluak, irailaren 24an egindako bilkuran, aho batez erabaki du gai-zerrendako puntu gisa sartzea Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren patronatuko kideen izendapena. Hori guztia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen izendapenean eta Zuzendaritza Nagusiko zuzendaritza-organoetan izandako aldaketekin bat etorritik, eta Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren estatutuetako 9.1.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak honako hau erabaki du:

Lehenengoa. - Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren patronatukide izan den aldetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren ordezkari gisa, honako hau kargutik kentzea:

- Susana López Altuna and.

Bigarrena. - Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren patronatukide izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren ordezkari gisa, honako hau:

- Miren Lorea Bilbao Arteche and.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

HAMABOSGARRENA. – Informazioa eta galde-eskeak.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2025eko irailaren 24ko 14:30ean.



Izpta.:- Maiteder Mielgo Rubio
Idazkaria



Izpta.:- Alberto Martínez Ruiz
Presidentea
Osasun Sailburua
O.E.

I. ERANSKINA

OSAKIDETZAKO ZERBITZU-ERAKUNDEA	GUZTIRA		A1 Fakultatibo med. eta tek.		A2 Gol- mailako teknikariak		B1 Osasun- diplomadun ak		B2 Erdi-mailako teknikariak		C1 Osasuneko tek. espez.		C2 Administraz- ioko tek. espez.		C3 Tek. espez. profesionalak		D1 Osasuneko tek. lag.		D2 Administrazio oko tek. lag.		D3 Tek. lag. profesionalak		E1 Mendeko langileak		ZP Zuzendari- tza- postuak			
	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI	MAR	MAI
	ZUZENDARITZA NAGUSIA	868	866	112	110	307	299	93	98	11	14	11	11	94	95	39	39	22	22	143	142	16	16	20	20	4	4	4
EMERGENTZIAK	358	358	101	101	5	5	118	118					15	16	3	3			61	60	54	54	1	1	2	2	2	2
ARABAKO ESI	4.517	4.517	1.083	1.083	38	40	1.415	1.415	25	25	208	212	56	61	63	61	672	666	445	443	58	58	454	453	6	6	6	6
ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	422	422	67	67	5	5	96	99	15	15			19	21	2	2	145	142	5	3	10	10	58	58	5	5	5	5
ARABAKO ERRIOXAKO ESI	189	189	24	23	1	1	61	61	2	3	3	3			8	8	29	29	22	22	5	5	34	34	2	2	2	2
DEBAGOIENeko ESI	606	606	184	184	9	9	193	193	1	1	22	22	7	7	7	7	70	70	66	66	7	7	40	40	5	5	5	5
TOLOSALDEKO ESI	230	230	70	70	5	5	84	84	3	3	5	5	3	4	2	2	7	6	40	40			11	11	2	2	2	2
DONOSTIALDEKO ESI	5.434	5.434	1.308	1.308	55	56	1.785	1.784	21	21	285	286	118	122	44	42	794	793	452	452	76	76	496	494	6	6	6	6
BIDASOKO ESI	691	691	215	215	6	6	232	232	9	9	29	29	13	13	2	2	74	74	73	73	2	2	36	36	5	5	5	5
GOIERRI-UROLA GARAIOKO ESI	941	941	262	262	8	9	335	335	5	5	33	33	11	11	6	6	114	114	91	92	15	13	61	61	5	5	5	5
DEBABARRENEKO ESI	962	962	235	235	14	14	318	318	5	5	38	38	13	14	9	9	152	152	91	91	7	7	80	79	5	5	5	5
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	188	189	93	94	4	4	48	48	16	16			2	2	2	2			23	23					2	2	2	2
URIBEKO ESI	1.562	1.562	435	435	11	11	487	487	2	2	54	54	11	11	7	7	196	196	190	190	15	15	154	154	5	5	5	5
TRANSF. ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA	130	130	31	31			34	34			43	43	6	6					3	3	13	13			2	2	2	2
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA	991	991	233	233	16	16	181	181	47	47			17	17	18	18	266	266	74	74	21	21	118	118	5	5	5	5
SANTA MARINA OSP.	477	477	62	62	7	8	130	130	3	2	8	8	13	13	7	7	122	122	17	17	7	7	101	101	5	5	5	5
GORLIZKO OSP.	340	340	33	33	7	7	108	108	3	3	2	2	3	4	4	4	99	99	18	17	6	6	57	57	5	5	5	5
BILBO-BASURTUKO ESI	4.444	4.444	1.150	1.150	45	45	1.445	1.445	17	16	197	197	77	78	15	15	628	627	394	396	54	54	422	421	6	6	6	6
BARRUALDE-GALDAKAKO ESI	3.081	3.082	888	889	30	33	1.003	1.003	13	10	136	138	40	40	17	17	333	331	304	304	48	48	269	269	6	6	6	6
BARAKALDO-SESTAKO ESI	1.036	1.036	274	274	13	13	362	361	3	3	41	42	8	9	3	3	126	126	129	128	14	15	63	62	5	5	5	5
EZKER-ENKART.-GURUTZETAKO ESI	4.975	4.975	1.239	1.239	65	66	1.629	1.629	24	23	287	290	58	64	27	27	830	829	401	393	57	57	358	358	6	6	6	6
GUZTIZKO PARTZIALA	32.442	32.442	8.099	8.098	651	652	10.157	10.163	225	223	1.402	1.413	584	608	285	281	4.679	4.664	3.042	3.029	485	484	2.833	2.827	94	94	94	94
GUZTIZKOA (Zuzendaritzako langileak barne)	32.536	32.536	8.099	8.098	651	652	10.157	10.163	225	223	1.402	1.413	584	608	285	281	4.679	4.664	3.042	3.029	485	484	2.833	2.827				
LANGILE-KOP. MAXIMOA*	32.442		8.098		652		10.163		223		1.413		608		281		4.664		3.029		484		2.827					

* Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 20an egindako bilan hartutako erabakiaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoak gehienez izan ditzakeen egiturazko langileen mugak lanbide-taldearen arabera aldatzen dituen Erabakia onartu zen.

II. ERANSKINA

OSAKIDETZAKO ZERBITZU-ERAKUNDEA	GUZTIRA		A1 Fakultatibo med. eta tek.		A2 Goi- mailako teknikariak		B1 Osasun- diplomaduna k		B2 Erdi- mailako teknikariak		C1 Osasuneko tek. espez.		C2 Administrazio loko tek. espez.		C3 Tek. espez. profesionalak		D1 Osasuneko tek. lag.		D2 Administrazio loko tek. lag.		D3 Tek. lag. profesionalak		E1 Mendeko langileak		ZP Zuzendaritza- postuak		
	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI	UZT	MAI
ZUZENDARITZA NAGUSIA	866	863	110	109	299	298	98	97	14	15	11	11	95	95	39	38	22	22	142	142	16	16	20	20	4	4	
EMERGENTZIAK	358	358	101	101	5	5	118	118					16	16	3	3			60	60	54	54	1	1	2	2	
ARABAKO ESI	4.517	4.518	1.083	1.083	40	40	1.415	1.415	25	25	212	212	61	61	61	62	666	666	443	443	58	58	453	453	6	6	
ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	422	422	67	67	5	5	99	99	15	15			21	21	2	2	142	142	3	3	10	10	58	58	5	5	
ARABAKO ERRIOXAKO ESI	189	189	23	23	1	1	61	61	3	3	3	3			8	8	29	29	22	22	5	5	34	34	2	2	
DEBAGOIENAKO ESI	606	606	184	184	9	9	193	193	1	1	22	22	7	7	7	7	70	70	66	66	7	7	40	40	5	5	
TOLOSALDEKO ESI	230	230	70	70	5	5	84	84	3	3	5	5	4	4	2	2	6	6	40	40			11	11	2	2	
DONOSTIALDEKO ESI	5.434	5.434	1.308	1.308	56	57	1.784	1.784	21	20	286	286	122	122	42	42	793	793	452	452	76	76	494	494	6	6	
BIDASOKO ESI	691	691	215	215	6	6	232	232	9	9	29	29	13	13	2	2	74	74	73	73	2	2	36	36	5	5	
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI	941	941	262	262	9	9	335	335	5	5	33	33	11	11	6	6	114	114	92	92	13	13	61	61	5	5	
DEBABARRENEKO ESI	962	963	235	235	14	14	318	319	5	5	38	38	14	14	9	9	152	152	91	91	7	7	79	79	5	5	
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	189	189	94	94	4	4	48	48	16	16			2	2	2	2			23	23					2	2	
URIBEKO ESI	1.562	1.562	435	435	11	11	487	487	2	2	54	54	11	11	7	7	196	196	190	190	15	15	154	154	5	5	
TRANSF. ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA	130	130	31	31			34	34			43	43	6	6					3	3	13	13			2	2	
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA	991	991	233	233	16	16	181	181	47	47			17	17	18	18	266	266	74	74	21	21	118	118	5	5	
SANTA MARINA OSP.	477	477	62	62	8	8	130	130	2	2	8	8	13	13	7	7	122	122	17	17	7	7	101	101	5	5	
GORLIZKO OSP.	340	341	33	34	7	7	108	108	3	3	2	2	4	4	4	4	99	99	17	17	6	6	57	57	5	5	
BILBO-BASURTUKO ESI	4.444	4.444	1.150	1.150	45	45	1.445	1.445	16	16	197	197	78	78	15	15	627	627	396	396	54	54	421	421	6	6	
BARRUALDE-GALDAKAKO ESI	3.082	3.082	889	889	33	33	1.003	1.003	10	10	138	138	40	40	17	17	331	331	304	304	48	48	269	269	6	6	
BARAKALDO-SESTAKO ESI	1.036	1.036	274	274	13	13	361	361	3	3	42	42	9	9	3	3	126	126	128	128	15	15	62	62	5	5	
EZKER-ENKART.-GURUTZETAKO ESI	4.975	4.975	1.239	1.239	66	66	1.629	1.629	23	23	290	290	64	64	27	27	829	829	393	393	57	57	358	358	6	6	
GUZTIZKO PARTZIALA	32.442	32.442	8.098	8.098	652	652	10.163	10.163	223	223	1.413	1.413	608	608	281	281	4.664	4.664	3.029	3.029	484	484	2.827	2.827	94	94	

GUZTIZKOA (Zuzendaritzako langileak barne)	32.536	32.536	8.098	8.098	652	652	10.163	10.163	223	223	1.413	1.413	608	608	281	281	4.664	4.664	3.029	3.029	484	484	2.827	2.827	94	94
--	--------	--------	-------	-------	-----	-----	--------	--------	-----	-----	-------	-------	-----	-----	-----	-----	-------	-------	-------	-------	-----	-----	-------	-------	----	----

LANGILE-KOP. MAXIMOA*	32.442		8.098		652		10.163		223		1.413		608		281		4.664		3.029		484		2.827			
-----------------------	--------	--	-------	--	-----	--	--------	--	-----	--	-------	--	-----	--	-----	--	-------	--	-------	--	-----	--	-------	--	--	--

* Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 20an egindako bilera hartutako erabakiaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoak gehienez izan ditzakeen egiturazko langileen mugak lanbide-taldeen arabera aldatzen dituen Erabakia onartu zen.

